

2020KO URRIAREN 8AN BATZARRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-

Tolosako Udaletxeko Pleno Aretoan egin du bilera 2020ko urriaren 8an, 19:15tan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, OLATZ PEON ORMAZABAL Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%31,50): Olatz Peon Ormazabal
ADUNAKO UDALA (%0,76): Josu Amilibia Alsua
ALEGIAKO UDALA (%2,78): M^a Aranzazu Irazusta Etxeberria
ALKIZAKO UDALA (%0,60): Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez
ANDOAINGO UDALA (%23,58): Mainer Lainez Lazcoz
ANOETAKO UDALA (%3,28): Pedro M^a Estanga Lasa
ASTEASUKO UDALA (%2,47): Aitor Usandizaga Izagirre
BALIARRAINGO UDALA (%0,22): Andoni Olano Manzano
BERASTEGIKO UDALA (%1,74): Amaia Azkue Eizagirre
IBARRAKO UDALA (%6,73): Igor Zapirain
IRURAKO UDALA (%3,00): Gorka Murua Makuso
LIZARTZAKO UDALA (%0,97): Iñaki Azpiroz Beldarrain
OREXAKO UDALA (%0,20): Gurutze Etxezabal Iturrioz
VILLABONAKO UDALA (%9,49): Beatriz Unzue Esnaola
ZIZURKILGO UDALA (%4,80): Jose M^a Luengo Zapirain

ETORRI EZ DIRENAK:

ABALTZISKETAKO UDALA (%0,52): Jon Zubizarreta Aldaia
ALBIZTURKO UDALA (%0,50): Iñaki Orbegozo Arrospide
BELAUNTZAKO UDALA (%0,39): Silvia Moneo Cid
BERROBIKO UDALA (%0,97): David de Miguel Les
GAZTELUKO UDALA (%0,25): Edurne Garcia Azurmendi
HERNIALDEKO UDALA (%0,50): Aitor Zubillaga Celaya
IKAZTEGIETAKO UDALA (0,79): Bakarne Otegi Jauregi
LARRAULGO UDALA (%0,41): Aitor Biestegui Fiallegas
ORENDAINGO UDALA (0,35%): Eneritz Olano Iriarte

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2020ko uztailaren 13ko Batzarraren Akta onartzea.**
- 2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20200713.025tik LE20200924.035ra.**
- 3. Mankomunitateko gerakinaren banaketa proposamena.**
- 4. Tolosaldeko Mankomunitateko estatutoak berritzeko mahai teknikoaren izendapenaren proposamena.**

5. Tolosaldeko Mankomunitateko bulegoen alokairu kontratuaren modifikazioa onartzea.

6. Tolosaldeko Mankomunitatea Elkarkidetzako bazkide-babesle izateko proposamena onartzea.

7. Mankomunitateko langileen lanpostuen balorazioa, katalogoa lanpostuen deskribapenarekin eta organigramaren proposamena.

8. Mankomunitateko 2020ko lanpostuen zerrendaren aldaketaren hasierako proposamena.

9. 2015-2019 legegaldian GHKri jarritako hainbat helegiteen gastu juridikoen onarpen proposamena.

10. Galde-erreguak.

Mankomunitatearen Idazkari den Leire Arteaga Zumetak eman dio fede aktari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Altzo, Amezketa, Elduain eta Leaburu-Txaramako ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutueto 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ALTZOKO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

AMEZKETAKO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

ELDUAINGO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

LEABURU-TXARAMAKO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. 2020ko uztailaren 13ko Batzarraren Akta onartzea.

Izenburuan adierazitako akta onartu da, Andoaingo ordezkariaren abstentzioarekin, argudiatuz bera ez zelako etorri bilera horretara.

2. Lehendakariaren Ebazpenaren berri ematea: LE20200713.025tik LE20200924.035era.

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio azken bileraz geroztik hartutako erabakia.

LE20200713.025
LE20200724.026
LE20200723.027
LE20200723.028
LE20200727.029
LE20200729.030
LE20200821.031
LE20200831.032
LE20200903.033
LE20200917.034
LE20200924.035

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

3. Mankomunitateko gerakinaren banaketa proposamena.

Idazkari-Kontuhartzaileak hitza hartu du azalduz mankomunitate honek 2019 ekitaldian duen gastu orokorretarako diruzaintza gerakinetik, 2.993.451,18 euro, zati bat banatu daitekela kide diren udalen artean, kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatearen bidez, indarrean dagoen legedia errespetatuz.

Aipaturako zatia, kalkuloak egin ondoren, 860.441,94 euro suposatzen dute, biztanleen arabera banatzen diren udal ekarpen finkoen banaketari dagokiona. Teknikariak azaldu ditu kalkulu hauen xehetasunak: 2020ko aurrekontua hartu da oinarri moduan, udal ekarpenak banatu direlarik bi zatitan:

- Zati aldakorra, jasotzen diren hondakinen arabera: ez da kontuan hartu.
- Zati finkoa: beste bi zatitan banatzen dira:

-Bilketa sistemaren arabera (%80): UTE Tolosaldea zabor bilketa enpresari ordaintzeko denez, ezin da hartu gerakinarako, kostu hori udalek asumitu behar dutelako.

-Biztanlearen arabera (%20): gastu estrukturalak eta garbiguneko bilketa eta tratamendu gastuak osatzen dute. Zati honetatik ateratzen da goian aipaturiko kopurua. Proposatzen da, udalen arteko homogeneotasuna mantentze arren, diruzaintza gerakinaren zatia banatu daitekela irizpide gisa biztanle kopuruaren arabera kalkulatzeko den egiturazko gastua hartuz.

Gerakinarekin lotuta, mankomunitatearen eraikin propioaren gaia dago. Kontutan harturik mankomunitate honen funtzio nagusia hondakinen bilketa zerbitzua dela, beharrezkoa ikusten da pabiloi bat izatea, zerbitzu nagusi hori aurrera eramateko. Batzarkideek erabaki behar dute berezkoa edo alokairuan izango den.

Aurreko legegaldian, mankomunitatearen helburua izan zen bere eraikin propioa eskuratzea etorkizun ez hurrun batean, beste batzuen artean ez delako batere erraza zerbitzua emateko lokal egokia aurkitzea, lokalaren barne antolamenduaz gain kokapena ere oso garrantzitsua

delako, alokairuen prezioen bariazioa etab. Azken urtetan aurreztutako diru kopurua proiektu horretara bideratzeko hitz egin izan ohi da, momentuz inongo erabakirik hartu gabe.

Gogorarazi da ere Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, bere azken fiskalizazio txostenean, gomendatu duela urtero jakitea zer egin behar den likidazioaren emaitzarekin.

Alkizako ordezkariak hitza hartu du, proposamen bat jarriaz mahai gainean eztabaidatzeko: lehenengoz, mankomunitateko langileek gai honen inguruan egindako txostena positiboki baloratu du. Gerakinaren banaketaren alde azaldu da, baina lotuko luke eraikinaren gaiarekin, azterketa serio eta azkar bat eginez, urte bukaerarako erabaki bat hartuaz. Azterketa honen barruan ikuspuntu ekonomikoa kontuan hartuko luke, erosketa eta alokairuaren arteko abantaila eta desabantailak baloratuz. Aztertzean zein den aukera hoberena erabakitzea ea posible den gerakina banatzea. Azkenik, konpromiso bat lortu beharko litzateke guztion artean.

Laburbilduz, bi jarrera daude: gerakinaren zati bat orain banatu edo dena erabili mankomunitatearen egoitza egiteko. Alkizako ordezkariaren proposamena ondorengoa da:

- Egoitzari buruz erabaki bat hartu urtea amaitu aurretik. Mahai gainean hiru aukera jarri dira: gaur egun martxan dagoen Alegikoa erosi edo berria bat eraiki (Apatta eta Aduna aipatu dira).
- Aldi berean, gerakinaren zati bat banatzea udalerrien artean.

Lehendakariak hitza hartu du eta honako proposamena egin du, estatutuen aldaketarako lan taldeak aztertzea beste gai hau ere. Azterketa hori oinarri izan daiteke erabakitzeko dirua banatzea edo ez.

Ondoren, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitateak hondakinen bilketa zerbitzua emateko eraikin propioa eskuratzeko aukera ezberdinen inguruko azterketa egitea onartzea.

BIGARRENA.- Aipatu azterketa egiteko lan taldea estatutuen aldaketa proiektuaren mahai teknikoa izatea onartzea.

HIRUGARRENA.- Konpromezua hartzea azterketa horren emaitzak kontutan izanik erabakiak hartzera; pabilioiaren inguruan eta diruzaintza gerakinaren banaketaren inguruan.

4. Mankomunitateko estatutoak berritzeko mahai teknikoaren izendapenaren proposamena.

Orexako ordezkariak proposatzen du Estatutoak berritzeko mahai teknikoaren kideak ondoren aipatzen diren udaletako ordezkariak izatea Tolosa, Larraul, Aduna, Alkiza eta Orea. Era guztietara, beste batzarkideren batek mahai tekniko horretan parte hartu nahiko balu atea irekita uztea proposatzen da. Lehendakariak hitza hartu du esateko gaiari jarraipena eman behar zaiola eta beraz, parte hartu nahi duenak konpromezua hartu beharko duela bere parte hartzean. Era berean, proposatu du astebeteko epea ematea, batzarkideren batek izena eman nahiko balu.

Ondoren Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitateko estatutuen aldaketa proiektuaren mahai teknikoaren partaideak izendatzea onartzea:

Tolosako udala: Olatz Peón Ormazabal

Larraulgo udala: Aitor Beistegi Fiallegas

Adunako udala, Josu Amilibia Alsua.

Alkizako udala, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

Orexako udala, Gurutze Etxezabal Iturrioz

BIGARRENA.- Aste bateko epealdia ematea mahai teknikoan parte hartu nahi duten beste batzarkideren batek izena eman dezan.

5. Mankomunitateko bulegoen alokairu kontratuaren modifikazioa onartzea.

Lehendakariak, bere aldetik, Tolosako Udalaren beharra agerian utzi du, Mankomunitateak bulego bezala erabiltzen duen lokala udal langileek erabili ahal izateko, toki gehiago behar dutelako.

Mankomunitate honek bere bulegoak Alegiko Bazurka poligonoko 50 zenbakidun pabilioian eraikiko diren bulegoetan kokatzeko formalizatu beharreko alokairu kontratuari dagokionez, izapidatutako espedientea ikusita.

Ikusirik alokatu nahi den pabilioian eraikiko diren bulegoak mankomunitatearentzako bereziki egokiak direla eta alokairuaren balorazioa egin dela.

Ikusirik indarrean dauden azaroaren 8ko 9/2017 sektore publikoko kontratu legea eta azaroaren 3ko 33/2003 administrazio publikoen ondareari buruzko legearen arabera, zuzeneko kontratua egin daitekela, beste batzuen artean ondasunaren ezaugarriengatik bereziki egokia denean.

Ikusirik 2020ko uztailaren 2ko Batzarrak onartu zuela alokairu kontratua egitea eta ordutik hona zenbait baldintza aldatu direla, beste batzuen artean eraiki beharreko obran zenbait aldaketa egiteko eskatu diola mankomunitateak jabeari, bulegoetan lehioak jartzea bezela eta alokairuaren iraupena 10 urterarte luzatzea egokiagoa ikusten dela.

Gaia aztertuta, aho batez ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Alegiko Bazurka poligonoko zenbakian eraikiko diren bulegoen alokairu kontratuaren aldaketak onartzea.

Alokairua mankomunitatearen bulegoak kokatzeko egiten da, 4 urteko iraupenarekin, luzagarria, urtez urte 10 urte arte, mankomunitateak horrela eskatuta eta prezioa 4 urteko iraupenagatik, guztira 54.098€ (BEZ kanpo), zeina hileko 1.127,04 euro (BEZ kanpo) diren.

BIGARRENA.- Gastua onartzea 2020 ekitaldiko aurrekontuaren 1.0000.201.01.162.20 kontu sailean, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan alokairu kontratu honen gastua aurreikustera baldintzatuta.

HIRUGARRENA.- Erabaki honetatik eratorritako beste egintzak eta kontratua sinatzeko Lehendakaria ahalmentzea.

LAUGARRENA.- Eraikinaren jabetzari erabaki hau jakinaraztea.

6. Tolosaldeko Mankomunitatea Elkarkidetzako bazkide-babesle izateko proposamena onartzea.

Lehendakariak hitza hartu du batzarkideei azaltzeko Tolosaldeko mankomunitatea ez dela Elkarkidetzako bazkide. Bertako zenbait langile eta funtzionarioek eskatu dutela Elkarkidetzako bazkide izan eta aportazioak egiteko beharrezkoak diren pausoak jarraitzea.

Ikusirik mankomunitateko langile eta funtzionarioak elkarkidetzako Borondatezko Gizarte Aurrikuspenerako Erakundeko (BGAE) bazkide egiteko lehenik lan egiten duten administrazioak formalizatu behar duela bere bazkide babesle izaera.

Ikusirik Batzarreko deialdiarekin batera banatu zaizkiela Elkarkidetzaren Enplegu BGAEn printzipio gidariak, Estatutuak eta Elkarkidetzaren Pentsioak Enplegu BGAEn administrazioaren Prestazioen Erregelamendua.

Tolosaldeko mankomunitateko estatutuetan onartutako eskuduntzekin,

ERABAKITZEN DA:

LEHENA.- Elkarkidetzaren Enplegu BGAEn sartzeko eskaera egitea 2020ko azaroaren 1etik, bazkide babesle moduan.

BIGARRENA.- Elkarkidetzaren Enplegu BGAEn printzipio gidariak, Estatutuak, Elkarkidetzaren Pentsioak Enplegu BGAEn administrazioaren Prestazioen Erregelamendua eta, indarreko legeriaren arabera, beti ezarri beharreko unean uneko

gainerako xedapenak ezagutzen dituela eta bete betean errespetatu eta betetzeko konpromisoa hartzen duela.

HIRUGARRENA.- Adieraztea Elkarkidetza Enpleguko BGAEko ekarpenak egiteko asmo eta konpromiso argia daukala, bere ebazpen edo hitzarmen kolektiboan aurreikusitako baldintzak kontuan hartuta, hau da % 7ko ekarpena eginez (langileek % 3,5 eta Mankomunitateak % 3,5). Dena dela, erakundeko Estatutuetan eta Prestazioen Erregelamenduan aurreikusitako salbuespenetan izan ezik, instituzio eskatzaileak egin beharreko ekarpenak paritarioak izango dira, eta ez dira inola ere Gizarte Segurantzako ekarpenen sistemaren ordezkia izango.

LAUGARRENA.- Lehendakaria ahalmentzea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak sinatzeko.

7. Mankomunitateko langileen lanpostuen balorazioa, katalogoa lanpostuen deskribapenarekin eta organigramaren proposamena.

Lehendakariak hitza hartu du esanez Mankomunitateko Idazkari kontu hartzailearen lanpostua sortzeko egindako lanpostuaren balorazioan konturatu zela, batetik mankomunitateko beste langileen balorazioa egin gabe zegoela eta bestalde, beste mankomunitateen langileekin alderatuta mankomunitate hontako langileen ordainsariak bajuagoak zirela. Kontutan hartuta sekulako lana egin dutela orain arte justiziazkoa iruditzen zitzaioela balorazioa egitea.

Orexako ordezkariak aipatu du Tolosako garbiguneko langilea eta hezitzaileak zerbitzu kontratuarekin daudela kontratatuta, egiten duten lana urteen poderioz finkotasuna daukatela. Hor arazo bat etorri daitekela azaleratu du kontratuak amaitzean auzitegietara jo ezker. Gaineratu du erabaki bat hartu behar dela gai horren inguruan ezin direlako kontratu horiek errepikatzen jarraitu, gero azken momentuan erabakiak hartu ezinik ibiliko garela.

Lehendakariak gaineratu du mankomunitateko lanpostuen zerrenda honela osatua dagoela, idazkari kontu hartzailea, ingurumen teknikaria, administraria eta garbiguneko langilea, horrez gain daudela bi hezitzaile eta Tolosako garbiguneko beste zerbitzu kontratu bat. Erantsi du denak izaten duela arrazoi bat eta kasu honetan arrazionalizazio legearen ondorioz ezin zirenez lanpostu berriak sortu, zerbitzu kontratuen bitartez ematen direla zerbitzu horiek.

Bozketa egin dute eta aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

Lehena.- Tolosaleko mankomunitateko ingurumen teknikaria lanpostuaren izena aldatzea bere edukia hobe isladatzen duenagatik Ingurugiro arloko arduraduna.

Bigarrena.- Tolosaldeko Mankomunitateko organigramaren proposamena onartzea.

Hirugarrena.- Katalogoa lanpostuen deskribapenarekin onartzea.

Laugarrena.- Mankomunitateko ingurumen arloko arduraduna, administraria eta garbiguneko ofizialaren lanpostuen deskribapena onartzea (II. eranskina).

Bostgarrena.- Aurreko puntuko lanpostuen balorazioa onartzea (III. eranskina) eta bere ondorio ekonomikoak 2020ko azaroaren 1etik aurrera aplikatzea.

Seigarrena.- Erabaki hauek Tolosaldeko mankomunitateko langileei jakinaraztea.

8. Mankomunitateko 2020ko lanpostuen zerrendaren aldaketaren hasierako proposamena.

Idazkari kontu hartzaileak 2020ko lanpostuenzerrendaren aldaketa proposamena azaltzen du aurreko puntuan onartutakora egokitzeko aldaketa dela esanez.

LANPOSTUEN ZERRENDA ALDAKETA 2020

ZENBAKIA	IZENA	IZAERA	ESKALA-AZPIESKALAA	HORNITZEKO SISTEMA	DEDIKAZIOA	SAILKAPEN TALDEA	DESTINO OSAGARRIA	BERARIAZKO DESTINOA (14 hilabete)	TITULAZIOA	HIZKUNTA ESKAKIZUNA	DERRIGORTASUN DATA	OHARRAK	BESTEBATZUK
1	Inguru giro arloko ardura duna	Lan kontratua	Administrazio berezia	Oposaketa lehiaketa	100%	A1	23	28.579,5 (% 10 barne)	Lizentziatua/Gradua	3	04/06/2001	Dedikazio berezia % 10	
1	Administraria	Lan kontratua	Administrazio orokorra	Oposaketa lehiaketa	100%	C1	19	14.595,59	Batxilerra/teknikaria	3	04/06/2002		
1	Garbiguneko ofiziala	Lan kontratua	Administrazio berezia	Oposaketa lehiaketa	100%	C2	16	15.985,65	Bigarren hezkuntza graduatua	2	04/06/2002		Gida baime na

Proposatzen da hasierako onarpena ematea.

Bozketa egin dute eta aho batez

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Hasiera batez onartzea 2020ko Lanpostuen zerrendaren aldaketa.

BIGARRENA.- Espedientea hamabost lanegunez, jendaurrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, interesa dutenez aztertu eta alegazioak edo erreklamazioak jar ditzaten, hala nahi izan ezker. Behin epe hori alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu gabe igarota, akordio hori behin betiko bihurtuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

9. 2015-2019 legealdian GHKri jarritako hainbat helegiteen gastu juridikoen onarpen proposamena.

Lehendakariak hitza hartu du batzarkideei azalduz 2016 eta 2018 urtean artean, Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Gipuzkoako Ingurumen Gunearen (errautstegia) proiektua gauzatzeko hartutako erabakiei jarritako helegiteen abokatuaren fakturak etorri direla eta aproposa iruditu zaiola faktura horien onarpena Batzarrera ekartzea.

Ingurumen arloko arduradunak azalpenak eman ditu prozeduraren inguruan, helegite hauek tartekatze Aitor Iztueta Garaikoetxea abokatuaren zerbitzuak kontratatu zituen

mankomunitateko Lehendakariak, kontratu txikien bidez. 2020 ekitaldian aipatutako abokatuak lan horiei dagozkion fakturak aurkeztu dizkio mankomunitateari, helegite horien epaiekin batera. Guztira 6 faktura dira, kopuru osoa 16.088,14 euro delarik.

Aipatu den bezala, Batzarrak onartu zuen helegite guzti horiek aurkeztea, nahiz eta gastua ez zuen onartu eta horren ondorioz ez ziren aurrekontuko A eta D faseak formalizatu. Edozein kasutan, nahiz eta aurrekontua gauzatzeko gastuaren faseak ez ziren behar den bezala egin eta 2016 ekitaldian ez zegoen aurrekontu partidarik aurreikusita gastu horrentzako, 2017 ekitalditik aurrera Batzarrak onartutako aurrekontuetan nahikoa eta egokia den kontu saila (partida) aurreikusten joan da, 2017 eta 2020 ekitaldi artean.

Aurrekontuaren faseak errespetatzea garrantzitsua dela azpimarratu du hurrengo urteetara begira, aurreko ekitaldietan onartutako konpromezuak isladatzeko, eta batez ere, hurrengo ekitaldian kreditu txertaketa bitartez erantsi ahal daitezen.

Beraz, proposatzen da Batzarrari faktura horiek onartu eta ordaintzeko agindua ematea, nahiz eta forma aldetik akatsak egon, lana burutu delako.

Aurreko legegaldiko Lehendakariak hitza hartu du, Adunako ordezkaria dena. Azaldu du errausgailuaren eraikuntzarako onartzen joan ziren tramiteen aurkako helegiteak aurkeztu zirela epaitegietan, lehen faseko bideragarritasuna, lizitazioaren baldintza pleguen onarpena, kontratuaren esleipena eta beste tramiteak. Sententziak ere publikoak direla gaineratu du, norbaitek interesa izango balu ikusteko. Onartu du epaiak galdu egin zirela, baina funtsa aztertu gabe. Epaileek esan zutenenez, mankomunitateak ez zuen zilegitasunik errekurtsu horiek aurkezteko, baina xelebrea iruditzen zaio epaia, mankomunitateak pairatzen dituelako ondorioak. Laburbilduz, epaian ez zen adierazten mankomunitateak arrazoirik zuen ala ez. Abokatuaren fakturei buruz, iruditzen zaio fakturak ordaindu egin behar direla, lanak eginak daudelako.

Forma akatsei buruz, adierazi du berak ez zekiela horren berri, eta gastua iristen zela abokatuak faktura aurkezten zuenean, epaia argitaratu ondoren.

Lehendakariaren ustez, ez zen bidezkoa mankomunitateko Batzarrak horrelako erabakiak hartu izana, gaineratuz erabaki politikoa izan zela, EH Bilduk, GHKren kontra egiteko, mankomunitateko diru funtsa erabili zuela bere interes politikoen alde. Iritzi hau Aktan jasotzea nahi du. Tolosaldeko Mankomunitatea izan zela Gipuzkoako Mankomunitate bakarra errekurtsuak aurkeztu zituena eta hori ez zela mankomunitatearen egin beharra. Aldi berean, argi geratzea nahi du fakturak ordaintzearen kontra ez dagoela, lanak burutu direlako.

Anoetako ordezkariak hitza hartu du adieraziz Batzarrak hartutako erabaki legitimoak izan zirela eta ez daukala ibilbide gehiagorik.

Adunako ordezkariak ere nahi du Aktan argi jasota geratzea EH Bilduk ezezik beste batzarkide batzuk ere helegiteen alde bozkatu zutela. Gaineratzen du fakturen kopurua huskeri bat dela errausgailuaren gastuarekin alderatuz gero, bai eraikitzearen aldetik eta baita tasen igoeraren aldetik ere. Errausgailuaren gastua herritar guztiek asumitu behar badute zilegi delako, erabaki horren aurka ekintzak burutzeko ere zilegitasun osoa daukatela dio. Gogorarazi nahi du ere EH Bilduk garai horretan bozken gehiengoa

zeukala. Azkenik, errausgailuaren gaiarekin zerikusia duten beste epaiketa batzuk ekarri ditu gogora, GHKk diru pilo bat gastatu zuela, pertsona batzuen kontra ekiteko.

Lehendakariak erantzun dio faktura eta mankomunitate honi dagozkion gaietaz ari direla soilik hitzegiten, ez beste erakundeei buruz. Berretsi du alderdikoikeriaz hartu zirela erabakiak eta gaizki erabilitako dirua izan dela. Aurrekontuak eta fakturak ez zirela mankomunitateko teknikariarekin kontrastatzen, aurrekontuak zuzenean eramaten zituztela Batzarrera eta zeukaten gehiengoa erabili zutela beraien interesetarako. Horrela nahi du Aktan jasota geratzea.

Irurako ordezkariaren ustez, erabaki politikoak hartzen dira, hartzen dituztenak udaleko ordezkari politikoak direlako azken finean baino ez EH bilduren izenean baizik eta udaleko ordezkari gisa.

Andoingo ordezkariak faltan bota du txosten juridikoa. Idazkariak erantzun dio badagoela eta emango diola.

Berastegiko ordezkaria Lehendakariari zuzendu zaio esanez bere iritzi pertsonalak direla eta intentzio txarrarekin dabilela. Horrela nahi du Aktan jasota geratzea. Gaineratzen du ez duela ordaindu nahi erraustegia eraikitzeke kostua eta beraz, parte inplikaturik dela erabakiak hartzeko eraikuntzaren aurka. Forma administratiboak ez direla egokiak izan onartu du, baina ulergaitza iruditzen zaio gaia Batzar honetara ekartzea.

Lehendakariak gogorazi dio bere lehenengo agerraldian argi utzi duela fakturak ordaindu egin behar direla, baina gardentasuna aldarrikatzeko ekarri duela gaia Batzarrera. Berastegikoak erantzun dio gardentasunez hartu zirela hartutako erabakiak.

Adunako ordezkariak berriro hitza hartu du azaltzeko bere konfiantzazko abokatu bat kontratatu zuela zuzenean. Aitortu du ez zela aurrekonturik eskatu, baina agerikoa zela gastu bat loturik zeukala kontratazioak, gero demanda bakoitza jartzea Batzarrera ekartzen zela eta Batzarrak onartzen zuela errekurtsioak tarteratzea, gaineratu du zehaztugabeko gutxieneko kopuruko kontratuak zirela.

Lehendakariak berretsi du mankomunitateko diruarekin erabilera okerra egin zela.

Andoingo ordezkariak uste du ez zegokiola mankomunitateari horrelako erabakirik hartzea, ez zegoelako bere kompetentzien artean.

Amaitzeko, Asteasuko ordezkariak garrantzia eman nahi dio errausgailuak sortuko duen kutsadurari eta txikikeriak alde batera utzi behar direla.

Ondoren, puntu hau bozkatu egin da, honakoa izan delarik emaitza:



Batzarrera bertaratutako udalerrri eta botoak	ALDE	KONTRA	ABSTENTZIO

Udalerriak	% botoak	Udalerriak	% botoak	Udalerriak	%botoak	Udalerriak	%botoak
Aduna	% 0,76	Aduna	% 0,76				
Alegia	% 2,78	Alegia	% 2,78				
Alkiza	% 0,60	Alkiza	% 0,60				
Altzo	% 0,69	Altzo	% 0,69				
Amezketeta	% 1,51	Amezketeta	% 1,51				
Andoain	% 23,58			Andoain	% 23,58		
Anoeta	% 3,28	Anoeta	% 3,28				
Asteasu	% 2,47	Asteasu	% 2,47				
Baliarrain	% 0,22	Baliarrain	% 0,22				
Berastegi	% 1,74	Berastegi	% 1,74				
Elduain	% 0,39	Elduain	% 0,39				
Ibarra	% 6,73	Ibarra	% 6,73				
Irura	% 3,00	Irura	% 3,00				
Leaburu	% 0,61	Leaburu	% 0,61				
Lizartza	% 0,97	Lizartza	% 0,97				
Orexa	% 0,20	Orexa	% 0,20				
Tolosa	% 31,5					Tolosa	% 31,5
Villabona	% 9,49	Villabona	% 9,49				
Zizurkil	% 4,8	Zizurkil	% 4,8				
19 udalerri	% 95,32	17 udalerri	% 40,24	1 udalerri	% 23,58	1 udalerri	% 31,5

Beraz, Batzarrak,

ERABAKI DU

Lehena.- Zerrendatzen diren fakturak onartu eta bere ordainketa egitea agintzea:

- 1.- Faktura zenbakia: 001/2020 Kopurua: 1.463,61 euro (BEZ barne) Kontzeptua: 349/16 Prozeduran, CMG1en Aurreproiektua.
- 2.- Faktura zenbakia: 002/2020 Kopurua: 1.210 euro (BEZ barne) Kontzeptua: EAEko Goi auzitegiaren aurrean, administrazioarekiko auzien salan 1160/2017 Prozeduran, kasazio idatziaren prestaketa.
- 3.- Faktura zenbakia: 003/2020 Kopurua: 1.463,61 euro (BEZ barne) Kontzeptua: 349/16 Prozeduran, CMG1en Bideragarritasun Azterlana.
- 4.- Faktura zenbakia: 004/2020 Kopurua: 2.927,23 euro (BEZ barne) Kontzeptua: 390/2016 CMG 1 Kontratuaren esleipenari dagokiona.
- 5.- Faktura zenbakia: 005/2020 Kopurua: 2.927,23 euro (BEZ barne) Kontzeptua: 129/2018 CMG 1 Kontratuaren Plan Ekonomiko Finantzarioari dagokiona.
- 6.- Faktura zenbakia: 006/2020 Kopurua: 6.096,46 euro (BEZ barne) Kontzeptua: 144/2018 CMG 2 Aurreproiektuaren demanda idatzia, 149/2018 CMG 2 Bideragarritasun azterlanean demanda

idatzia, 149/2018 CMG 2 Kontratazio pleguen demanda idatzia, metaketan parte hartzea eta ondorio idatzia.

10. Galde-erreguak.

Ez da galde erregurik egiten.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko hogeit hamar orduak eta bost minutu direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA